

Mehaignerie eta Veil zentristek 'Pasqua legea' aldatzea eskatu dute

Atzeritar nortasunaren ustezko ezaugarriek piztu dute eztabaida

Edouard Balladur Frantziako gobernuburuak gaur bertan edo bihar Simone Veil eta Pierre Mehaignerie ministro zentristekin hitz egingo du. Giza Arazoetarako eta Justiziako ministroek inmigratioaren murrizteko legean sartutako zuzenketa bat berrikusteko eskatuz ezustea sortu dute eta Gobernuaren baitan dauden iritzi ezberdintasunak nabarrian jarri.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Pierre Mehaignerie Justizia ministroak eta Simone Veil Giza Arazoetarako arduradunak lehen ministroari dei egin zioten joan zen larunbatean, egun horretan bertan ontzat hartu zen inmigratioaren murrizteko legean sartutako zuzenketa baten aldaketa eskatuz. Zuzenketa hau Alain Marsaud RPRko diputatu eta epaile ohiak aurkeztutakoa zen eta honen arabera, Poliziak «arraza ezaugarriez aparteko edozein elementutan oinarrituz, ustezko atzeritarren identitateaz ziurtzeko» kontrolak egitea zilegi izango du.

Justizia ministroaren arabera, «irizpide honekin legezko egoeran dauden atzeritarrek bazterketa jasan dezakete» eta Simone Veilekin batera, «etorkin gazteei begira neurri onuragarriak indarrean jartzeko» eskaera zuzendu dio Edouard Balladur gobernuburuari. Jarrera honek Gobernuaren baitan, segurtasun gaiei begira, iritzi ezberdinak daudela nabari utzi arren, bi ministro zentristek haxe gehitu zuten: «Gure eginbidea besterik ez dugu bete eta, oro har, lege horretan, lege kanpoko inmigratioari aurre egitea eta herritarren askatasuna babestea gogoan zeuden bi helburuen artean oreka ona egitea da».



Veil eta Mehaignerie zentristek Pasqua eskuindarraren legearen atal bat salatu dute.



EPA

KONPONKETA BALLADURREN GAIN Simone Veil Giza Arazoetarako ministroak Frantziako Legebiltzarrak joan zen larunbat goizean ontzat hartutako legearen «zuzenketa batzuk berrikusi behar lirateke, funtsez ez baitute ezer ekartzen eta, aldiz, gaizki hartuak izaiten

ahal bailitezke» adierazi zuen igandean, Charles Pasquarekin batera zelarik bilera batean. Barne ministroak, ordea, iritzi zionez, «Parlamentuak bakarrik erabaki dezake atzeritarren kontrolari buruzko legean aldaketak egitea». Dena den, gaur arte Europako Komunitatearen gailurrean dagoen Edouard Balladurrek jakinarazi du Mehaignerie eta Simone Veilekin hitz egingo duela Kopenhagetik itzuli orduko.

Anartean, Pasquak moldatu eta aurkeztutako lege honek salaketak eragin ditu arraza bazterketaren aurka diharduten elkarreetan, ezkerreko alderdietan eta ekologisten artean. Inmigratioaren murrizteko legea ontzat hartu orduko, protestaldiak izan ziren Frantzian zehar eta manifestaldi jendetsuena Parisen egin zen, bertan 20.000 lagun baino gehiago elgarretaratu baitziren. Antolatzaileen iritzian «arrakasta handiko ekintza» izan zen manifestaldiaren amaieran jakinarazi zenez, Parisen bukatuko den arrazismoaren aurkako ibilaldia eratuko dute udazkenean. Parisekoaz gain, Frantziako eskualde gehienetan 'Pasqua legearen' gaitzesteko elgarretaratzeak egin ziren joan zen larunbatean eta hauetarik arrakastatsuenak Toulouse, Lille, Saint Etienne, Marseille eta Strasburgekoak izan ziren.

Kortsika: 12 etxebizitza txikitu ditu atentatu batek

AIACCIU

Calvi-n (Kortsika mendebaldean) eraikitzen ari ziren 12 etxebizitza txikitu zituen atzo goizean eztabaida egin zuen lehergailu batek. Polizi iturriek jakinarazi dutenez hamar kilo dinamitak osatzen zuten lehergailua.

Txikitutako etxebizitzak eraikitzailea Rodolfo Cagliata italiarra da. Oraindik inork bere gain hartu ez badu ere, Poliziak Kortsikako Nazio Askapenerako Frontearen (FLNC) bi adarretako bati leporatu dio atentatua. Kortsikako abertzaleek frantziarren esku dauden turismo ondasunen aurkako atentatuak egin ohi dituzte, «kolonialismo frantziarra» salatzen eta inbertsio turistikoaren etetea eskatzeko.

Eskuin muturreko liburudenda bat zartatu dute Parisen

PARISE

Goizeko laurak t'erdialdera lehergailu batek eztabaida egin zuen atzo Pariseko Dark Side liburudendaren aurrean. Oraingoz inork bere gain hartu ez duen atentatu honek ez zuen biktimarik eragin, baina kalte material ugari izan ziren leiho eta ateetan batez ere. 'Dark Side' liburudenda ultraeskuineko bezero eta militanteen topaleku dela ziurtatu du Frantziako Poliziak.

Iuk Solansen dimisioa eskatu du «arrazakeria bultzatzeagatik»

MADRIL

Madriko Izquierda Unidak (IU) komunitate horretan Gobernuaren ordezkari den Miguel Solansen dimisioa eskatu du, joan den astean kaleratutako txosten batean «ekintza arrazista eta xenofoboaren ugaltzea bultzatu zuelako».

Joan den ostiralean Madriko Gobernu Ordezkaritzak 1992ko delikuentzari buruzko txostena kaleratu zuen. Bertan esaten zenez, «antzerian dugu zenbait talde atzeritar marjinalek Madriko herritarren segurtasunean eragin txarra dutela». Agiriak gaineratzen zuenez, «droga banatzen den giroetan ere jakin badakite, atzeritarrek hiriguneaz jabetzen ari direla eta salmenta

gehiena beren esku dagoela jadanik».

Madriko Izquierda Unidak gogor gaitzetsi du agiri hau, bere ustetan, «elkartasunik eza indartzen duelako eta etorkinen aurkako eraso arrazista eta xenofoboak bultzatzen dituelako». Agiriaren bitartez, «bidezkoa ez den mundu batekiko eta langabezia, segurtasunik eza eta marjinazioa bultzatzen dituzten politikoekiko erantzukizun politikoak eta gizarteak estali» nahi ditu Gobernu Ordezkaritzak, beti ere Iuren arabera. Agiriaren larritasun azalpen politikoa ikusita, eta bere erantzulea delakoan, koalizio ezkeriarrak Miguel Solans gobernu ordezkariaren dimisioa exigitu dio Gobernu espainiarrari.

Egunkaria

egoitza berria
BILBON

ekainaren 28tik aurrera

Helbide berria: ZABALBURU ENPARANTZA, 2-1. ezk. 48003 BILBO

TELEFONOAK:

Erredakzioa 410 40 46
410 42 41
Publizitatea 410 38 55
Harpidetza / gidak 410 38 46

FAXA:

410 37 15